

Felix Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Elgorria eta txertoak

Elgorri kasuen agerraldi nabarmena bizi izan dugu gure inguruan azken asteotan. Gipuzkoan, adibidez, 21 kasu izan dira, denak ere haurrak edo 35 urte baino gutxiagoko gazteak. Haietatik bik ospitaleratzea behar izan dute penumonia larriengatik, azkenean ondo sendatu badira ere.

Espainiako Estatuan 1.300 kasu izan dira 2011n; eta Frantziako Estatuan berriz, 5.000tik gora, 300 pneumonia larriekin eta sei hildakorekin. 2004an berriz bi kasu soilik izan ziren, eta Osasunerako Munduko Erakundeak 2000. urterako desagertzea aurreikusten zuen. Zer gertatu da bat bateko agerraldi hau izateko, eta joera aldatzeko?

Agerpen berri hau txertakete-kin lotua dago. Gipuzkoan, esaterako 21 gaixotatik hamazortzi txertatu gabeak ziren, eta antzerako datuak ditugu beste herrialdetan ere. Diotenez, gurasoen %5ak ez du haurrak txertatzerik nahi, hauek lekarketen balizko ondorioengatik, eta geroz eta zabalagoa da txertatu gabekoen kopurua.



DANI BLANCO

Txertaketa, norbanakoaren erabakia izateaz gain, gizarte erabakia ere bada, “artalde efektua” mekanismoa erabiltzen duelako. Elgorria bezain kutsakorrek diren gaitzetan, inguruko haurrak txertatuak badaude, birusak ez du zabaltzerik, eta hor galtzen da. Baina haurren portzentaje bat txertatu gabe badago, birusa bertan mantentzen da, eta gaitz

nontzeko haurrak –eta gaitza pasa gabeko helduak ere– arriskuan jartzen ditu. Haur bat txertatzeak, beraz, ingurukoak babes-ten ditu (baita txertatu gabea ere), eta ez txertatzeak berriz, beste guztiak ere arriskuan jartzen ditu. Galde iezaiozue 70 urtetik gorakoei, amonei bereziki, elgorriari buruz. Zerbait bizi ez izanak kontzientzia arintzen omen du.

Askok hitz egin da txertoen arriskuei buruz, baina oraindik ez da frogatu eragin txarrik dutenik. Autismoarekin lotzen zituen lan zientifikoa gezurrezkoa dela ikusi da, eta gaur egun, merkurioa erabat ezabatu da txertoetatik. Eztabaida luzeagoa

emango lukeen arren, txerta itzazue faborez zuen haurrak, beraien onagatik, eta inguruko onagatik ere bai. ■

« Askok hitz egin da txertoen arriskuei buruz, baina oraindik ez da frogatu eragin txarrik dutenik. Autismoarekin lotzen zituen lan zientifikoa gezurrezkoa dela ikusi da, eta gaur egun, merkurioa erabat ezabatu da txertoetatik »

TXANDAN

Castillo Suarez

Telebistari begira



Ez galdetu zergatik, baina telebistari begira pasatu ditut azkeneko egunak. Lehendabizi *Supernanny*: eguna garrasika eta oihuka pasatzen duen haur bat da protagonista, gurasoak lur jota uzten dituen. Ondoren, *Hermano mayor*: lanik eta fundameturik batere ez duen gazte bat, nahi duena lortzen ez duenean amari oldartzen zaiona. Ama noski, ikaratura bizi da semeak aurrean dituen gauza guztiak suntsitu egiten dituelako. Gutxiagoarengatik bidaltzen dituzte batzuek kartzelara. Gero *Supervivientes*: ikaragarriko kalapita esterilla baten kontura; mutil batek neska bat arrastaka darama; partaideak ikaratura

daude mutilak erabiltzen duen indarkeriarekin, ahozkoa ere bai. Handik gutxira bota egin dute programatik. Bukatzeko, *Salvame*: partaide baten aitari estalitako kamara baten bidez grabazioa egin diote alabarengatik gaizki esaka; irudiak ematen dituzten bitartean alaba negar eta negar. Esango nuke batzuek poztu egiten direla lan-kidearen sufrimendua ikusita.

Nazka eginda baina, aldi berean, kontzientzia lasai bueltatu naiz nire betiko zereginetara, ontasuna aldarrikatzeko ikaragarriko gogoarekin. Baina ez dakit inozotzat hartuko ote nauten; ona izatea edo, behintzat, saiatzea ez dago modan; ez du audientziarik. ■